

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Interesdunari jakinaraztea (espediente zk.: 16011P-43/2016), helbide ezezaguna baitu, udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola arauz kanpo erroldatuta egoteagatik**

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Sonia López Aissa

Erabaki hau ezin izan zaio interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna delako. Beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko, aurretik eta aukeran ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratu ostean, iragarki hau BOEn argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/231P Ebazpena. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 17an, ebazpena eman zen (16/231P Dekretua). Hau da edukia, zuri dagokizunez:

Udal honek jakin du, D. L. A.k, Abiagabarri kaleko 21 zenbakiko 2. C etxebizitzaren jabeak, 2016ko uztailaren 7an aurkeztutako idazkiaren bidez, Sonia López Aissa arauz kanpo erroldatuta dagoela biztanleen udal erroldan, ez baita etxe horretan bizi eta, beraz, ez baititu betetzen Biztanle eta lurralde mugei buruzko Arautegiak, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zenak, 54. eta 68. artikuluetan xedatutako baldintzak.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorri erregelamendu horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionalako lehendakariak eta Eskumenak autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak biek batera 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearren gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta orobat aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedienteari hasiera ematea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko ondoren zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK	AGIRIA
Sonia López Aissa	44.686.910-A

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean, aukera izan dezan alegatzeko eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkezteko, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldako egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du, Amurrion, 2016ko abuztuaren 17an. Halabeharrezko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko urriaren 4a

Alkate lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA